



Andoni Mujika

◆ IRAKASLEA

Eredua?

INTERESATZEN ZAIT euskal indar politikoez gaurkotasanaz egiten duten irakurketa orokorra ezagutzea; baina diagnosis baino gehiago, jakin nahiko nuke gai estrategikoetan zein den etorkizunerako proposatzen duten norabidea eta nolakotasuna gauzak egiteko. Ea zerbait berritzailea dioten, behingoz.

Zentzu horretan azken bi-hiru urteetan ikusi izan da (Espainia mailan indar handiagoz) mugimenduren bat. Proposamen politiko berri horiek ezkerren eremu soziologikoan antzeman dira nagusiki; eta lotuta egon dira –zoritzarrez– erreakzio mekanismoekin: krisiak eragindako haserrea, ustelkeria eta gauzak egiteko kultura kazikea. Baina, esan behar dut, gizarte ereduaz diotena zehaztasunik gabea iruditu zaidala; eta bestetik, esan dutena ez zait ez berriegia, ez erakargarriegia egin.

Euskal ezkerrean etorrita, honek ere argitu beharko luke bere herriarentzat estrategikoak diren esparruak zeintzuk diren, eta batez ere, horien aurrean zein erantzun daukan. Zein da bere ere-

Euskal ezkerrean etorrita, honek ere argitu beharko luke bere herriarentzat estrategikoak diren esparruak zeintzuk diren, eta batez ere, horien aurrean zein erantzun daukan. Zein da bere eredua? Uste dut interesatzen zaidan honetaz ez dela inoiz garbi eztabaidatzen eta posizionamendua hartzen

dua? Uste dut interesatzen zaidan honetaz ez dela inoiz garbi eztabaidatzen eta posizionamendua hartzen. Gurean ere ezkerre anitza da. Anitzegia ote? Eta etorkizuneko gizarte ereduaren eztabaida egin gabe dauka ausardiarekin eta serio. Herritarrok, behinik behin, ez dugu ulertu zein den proposamen hori.

Eztabaidaren ariketa horretan lurra hartuz, puntu konkretu batzuen inguruan erantzunak eskatuko nizkioke euskal ezkerreari:

Bat. Kudeaketa publikoa eta eskubide unibertsalak bereizi ditzala. Gauza bat da pertsona guzti-guztiek izatea edozein eskubide, eta beste bat, oso ezberdina, nola eskaintzen den hori: kontzertazio bidez, autoeraturaz, administrazioak zuzenean kudeatuta funtzionarioen bidez, baldintza exigenteak jarrita azpikontratatu den enpresari... Eskubide hauek ez dira nahitaez kudeaketa publikoan bermatu behar. Bermatu egin behar dira.

Bi. Ekonomiaren garapenerako norabide bat. Zer uste du autoeraketaz? Eta ekonomia sozialaz eta solidarioaz? Zeintzuk dira, interesgarriak iruditzen bazaizkio, ekonomia horiek bultzatzeko bere politika zehatzak?

Hiru. Hari horri jarraituta, zein da euskal ezkerren industria eta inbertsio politika?

Lau. Nola ez desaktibatu, laguntza sozialen bidez, pertsona eta taldeen ekimenerako motibazioa?

Dena zorren zorroan gera ez dadin, euskal ezkerreari aitortu behar zaizkio dohain batzuk, adibidez: ingurumenean, zintzotasunean, hizkuntza politikan eta berdintasun zein justizia ekimenetan. ■



DENA PREST

Datorren ikasturterako testuliburuak eta ikasmateriala dagoeneko prest dituzu gure liburu-dendetan edo elkar.eus webgunean.

Etorri eta erreserba itzazu!



www.elkar.eus

ALGORTA · ARRASATE · BAIONA · BASAURI · BERGARA · BILBO · DONOSTIA · GASTEIZ · HERNANI · IRUN · IRUÑEA · TOLOSA